

1 ¡Ana! Auxe da lana!
Zu gabe gozagaitz zait dana:
jana eta edana
kaltegarí ditut, laztana.
Ana! Ana!
Usoak juan dira egoaldera,
Kabi beñiren bat an bilatzera,
maitasun galduak aztutzera.
Lañoak aizetan dabiltz
bide luzeak egiten:
biotz ixilén malkoak
ez ditu iñork jakiten.
Ana! Ana!
Negaréz urtu naiz dana,
ilunari nago emana.
Atoz; ai! neregana:
atoz, bai, Ana!

Bigarren abes-aldian, eresia bakarik asi bedi itzik gabe. Gero beñiro abes-
tu bedi: Ana! Ana! bi aldiz; eta «Lañoak aizetan...» esaten duan lekuan, abes
bitez beste itz auek:

Erbiak arin dijoaz
txakur agiñen igesi:
nere oñaze onekin
ezin ninteke ni bizi.

Gero: «Atoz, ai neregana» ordeztu, esan bedi: «Efuki zaite nigana» ta amaitu:
Atoz, bai, Ana!